

Udalerriko partaidetzazko hiri-diagnostikoa Genero Ikuspegitik

Azkoitiko Mapa Morea



Lan honek Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearen dirulaguntza jaso du

1. Proiektuaren helburuak

Proiektuaren memorian jaso bezala, hainbat helbururi heldu nahi izan zitzaion proiektuan:

1.1. Azkoitiko Mapa Morearen helburu nagusiak

- **Genero Ikuspegitik Azkoitiko udalerriko partaidetzazko diagnostiko urbanoa** egitea, prozesuak agertaraziko dituen puntuak eta informazioa (kuantitatiboa zein kualitatiboa) mapa bateratu batean jarri. Mapa partekatu hau aldi berean lan-tresna eta emaitza bilakatzea da xedea.
- Udal teknikariak (eta ordezkari politikoak, ahal den heinean) **Genero Ikuspegiaren araberako hirigintzan eta generoaren inguruko gaietan trebatzea**. Bide batez, eguneroko lan teknikoan zein erabaki estrategikoetan Genero Ikuspegiak eskaini ditzakeen onuretz jabetzen laguntzea da asmoa.

1.2. Helburu zehatzak, lanaren emaitzei dagokionez

- **Azkoitiko Mapa Morea** osatzea, diagnostikoa egiteko Hiri-Generogramaren ardatzei jarraituz.
- **Irizpideak ezartzea eta proposamenak egitea**, etorkizuneko herri-proiektuetan erabilgarri izango direnak. Prozesuan ikasitakoak etorkizun batean Plaza Berrian egingo den proiektuan aplikatzeko ariketa egitea da asmoa.
- **Hirigintza saileko praktikak aldatzea**, dokumentu estrategikoetan, proiektuetan zein prozesuetan Genero Ikuspegia berez eta zeharkakotasunez txertatu daitezen.
- **Oinarri sendo bat ezartzea**, etorkizunari begira hirigintzaren eta generoaren inguruan sakontzen jarraitzeko.

1.3. Helburu zehatzak, udal teknikariei eta ordezkari politikoei dagokionez

- **Hirigintza arloan erabakiak hartzen dituztenei dagokionez**: trebakuntza emateaz gain, Genero Ikuspegia udal-plangintzan txertatzea lege-betekizuna izateaz gain, konpromiso bat eskatzen duela ulertaraztea. Era berean, eta partaidetzazko zein zeharkako prozesuen bidetik, desahalduntze mekanismoak abian jartzea.
- **Hirigintza arloan jarduten ez dutenei dagokionez**: trebakuntza emateaz gain, partaidetzazko zein zeharkako prozesuen bitartez ahaldundute mekanismoak abian jartzeko baliabideak eskaintzea.
- **Partaidetzaren eta zeharkakotasunaren kulturaren eta praktikatan sakontzea**.
- **Hirigintzarekin edo ekipamendu publikoekin lotutako prozesu komunitarioen diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan sakontzea**.

1.4. Helburu zehatzak, eragile sozialei dagokionez

- **Generoaren inguruko gaietara hurbildu berriak direnak sentsibilizatzea**, udalerriko espazioak "betaurreko moreekin" begiratzuz Genero Ikuspegiak zertan datzan hobeto ulertzen delakoan.
- **Generoaren inguruko gaietan sentsibilizatuta daudenak ahaldundutea**, hauei parte hartzeko espazio bat eskaintzea eta bertan parte hartzera animatzea.
- **Erakundeen partaidetzaren kulturaren eta praktikatan sakontzea**, hirigintzarekin lotutako prozesu komunitarioen testuinguruan bereziki.
- **Emakume taldeei dagokionez, interseksionalitatea lantzea**, auzo desberdinen diagnostikoetaz baliatuz.

2. Prozesuaren deskribapena

Proiektuaren jarduketak bi mailatan bateratu nahi izan dira, alde batetik formakuntza eta partehartze saio mistoak proposatuz, eta bestetik prozesua bi lantalderekin garatuz, udalarekin alde batetik eta emakume talde zein herritarrekin bestetik.

2.1. Formakuntza eta partehartzea

Helburu hauek lantzeko prozesu misto bat eraman da aurrera, formakuntza eta partehartze saioak txandakatuz eta bateratuz. Hala, maila teorikotik abiatuta, Azkoitiko hirigintza (lan prozesuak, erabakiak hartzea, plangintza bera, proiektuak) zein kaleetako inguru fisikoa Genero Ikuspegitik aztertu nahi izan dira. Bereziki azpimarratuko da beraz hirigintzan Genero Ikuspegia txertatzea ez dela soilik hainbat irizpide ezartzea plangintzan eta proiektuetan, baizik eta hori baino gehiago, lanerako kultura, metodologiak eta praktikak feminismoaren eta ekitatearen ardatzekin zeharkatzea eskatzen duela, besteak beste datuen eta diagnostikoen balizko neutraltasuna ezbaian jarritz.

“Genero Ikuspegia txertatzea ez da soilik hainbat irizpide ezartzea plangintzan eta proiektuetan, baizik eta hori baino gehiago, lanerako kultura, metodologiak eta praktikak feminismoaren eta ekitatearen ardatzekin zeharkatzea eskatzen du”.

Partehartzeari dagokionez, ahalduzko-desahaldutze ariketa bezala proposatu da prozesua. Botere uzte eta emate hau bi maila desberdinetan gauzatzeko saiakera egin du proiektuak: alde batetik, **hirigintza sailaren eta udaleko beste arloen artean** eman beharreko boterearen birbanaketa legoke, eta bestetik, **udalaren eta emakume taldeen zein herritarren artean** eman beharrekoa.

2.2. Udal Mahaia eta Mahai soziala

Prozesua bi lantaldetan garatzea goian aipatu botere birbanaketaren bidean pauso bat gehiago litzateke.

Udal Mahaia

Udaleko hainbat teknikariz eta ordezkari politikoz osatua. Lau saioetan lantalde osoa bildu ez bada ere, honoko hauek hartu dute parte:

- **Zinegotziak** (5 emakume, gizon 1). Positiboki azpimarratzekoa da gobernu-taldeko zein oposizioko 3 alderdi desberdinetako zinegotziak batu direla prozesura:
 - Mertxe Zubillaga, Berdintasuna eta Prebentzioko zinegotzia.
 - Imanol Arrizabalaga, Obra eta Zerbitzuetako zinegotzia.
 - Janire Igoa, Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia.
 - Sonia Vázquez, Kultura eta Gazteria zinegotzia.
 - Laida Beristain, zinegotzia.
 - Itziar Joaristi, zinegotzia.

- **Teknikariak** (3 emakume, 5 gizon):
 - Maider Urbieta, Berdintasun teknikaria.
 - Asier Aranbarri, Hirigintzako teknikaria.
 - Peio Larrañaga, Gazteriako teknikaria.
 - Xabier Artola, Udaltzainen buru.
 - Lorea Aizpuru, gizarte langilea.
 - Goretti Aldalur, komunikazio arduraduna.
 - Jesus Arrizabalaga, Kultura teknikaria.
 - Xabier Arenaza, Kultura teknikaria praktikatan.

Hauteskunde urtea izan denez, eta prozesuak herritarren partehartzea eskatzen zuenez, udaberrian hastekoa zen prozesua udazkenara atzeratu behar izan da. Edonola ere, prozesu osor-osorik garatu da, Mahai Teknikoarekin 4 saio egin direlarik.



- **Irailak 24.** Sarrerako formakuntza: Hirigintza Feministaren oinarriak, helburuak eta baliabideak. Metodologia proposamena.
 - Araudiaz haratago... zergatik eta zertarako txertatu Genero Ikuspegia hirigintzan?
 - Ze datu, ze diagnostiko? Isuriak (“sesgos”), diagnostikoaren orientazioa.
 - Populazioaren aniztasunari erantzutea, interseksionalitatea ikusgai egitea.
 - Berdintasunetik haratago, ekitatea. Osasun arlotik ikasketak.
 - Parte-hartzea eta zeharkakotasuna (erakunde barnekoa, erakundeen artekoa).

- **Urriak 1.** Hiri-Generograma eta auzoen diagnostikoa Genero Ikuspegitik, hamar ardatzen arabera.
 - Segurtasuna erasoen eta mehatxuen aurrean.
 - Babesa arriskuen eta kalteen aurrean.
 - Irisgarritasun unibertsala.
 - Oinezkoa eta mugikortasun jasangarria.
 - Baliabideetara irismena: Etxebizitza.
 - Baliabideetara irismena: Ongizaterako ekipamendu eta baliabideak.
 - Baliabideetara irismena: Jarduera ekonomikoak.
 - Denboren erabilerak eta hauen kontziliazioa.
 - Lan erreproduktiboa eta zaintza-lanak.
 - Adierazgarritasun erreala eta sinbolikoa.



- **Urriak 8.** Azkoitiko Mapa Morean “txintxetak” jartzea.
 - Mapa gainean defizitak zein aktiboak kokatzeko eskatu zaie partaideei, lehenespen ariketa bat eskatuz: guztira 15 puntu besterik ezin izan dute jarri mapan, gutxienez 3 defizit edo aktibo jarri behar izan dituztelarik. Guzti hau taldeka egin dute, identifikazioan eta lehenespenean eztabaida sustatze aldera.
- **Azaroak 19.** Azkoitiko Mapa Morearen zirriborroaren aurkezpena, eta honi azken ekarpenak egitea.
 - Gainera, azken lehenespen bat eskatu zaie, herriko hiru gunek larrienak adierazteko eskatuz.
 - Honetaz gain, ariketa modura, Plaza Berrian inoiz berrituko balitz proiektuaren egileari mahai gainean jarri beharreko 3 helburu nagusienak adierazteko eskatu zaie.

Mahai soziala

Talde feministako kideei zein herritarrei zabaldutako “Mahai sozialean” garatu den prozesua udalean egin denaren berbera izan da.




Udal Mahaiarekiko alde bakarra izan da atariko formakuntza saioa ez dela egin herritarrekin, eta beraz 3 saioko prozesua osatu dela:

- **Urriak 8.** Hiri-Generograma eta auzoen diagnostikoa Genero Ikuspegitik, hamar ardatzen arabera.
- **Urriak 15.** Azkoitiko Mapa Morean “txintxetak” jartzea.
- **Azaroak 19.** Azkoitiko Mapa Morearen zirriborroaren aurkezpena, eta honi azken ekarpenak egitea.

2.3. Prozesu irekia

Mahai Sozialaz gain, herritarrek bi aukera izan dituzte Azkoitiko Mapa Moreari ekarpenak egiteko, online galdetegiaren bitartez biak:


- Auzoen balorazioa egiteko, Hiri-Generogramaren ardatzei jarraituz. Galdetegiaren bitartez formakuntzan adierazitako irizpideak helarazi nahi izan dira saioetara azgertzeko aukerarik izan ez dutenei. Galdetegira esteka: labur.eus/AMM1
- Azkoitiko Mapa Morean “txintxetak jartzeko”. Galdetegiaren bitartez “puntu ilunen” ideia gainditu nahi izan da, bost irizpideren arabera Genero Ikuspegia alderdi negatiboetara zein positiboetara zabal daitekela adieraziz. Galdetegira esteka: labur.eus/AMM2



2.4. Prozesu malgua

Azkoitiko Mapa Morea hasiera bateko planteamenduaz haratago joan da zenbait esparrutan. Adibidez, gazteen ekarpenak jasotzeko berariazko jarduketak garatu ditu. Hala, hainbat ikastetxeren laguntzari esker, 14 urtetik gorako (DBH, Batxilergoa, Lanbide Heziketa) 142 gaztek txintxetak erantsi dizkiote mapari. Herritarrentzako prestatutako online galdetegia moldatu da informazio bilketa egiteko, eta beraz 600 puntu baino gehiago bildu dira. Informazio horrek eranskin bezala lagunduko dio Azkoitiko Mapa Moreari, helburu bikoitzarekin:

- batetik, mapari geruza esanguratsu bat gehitzea, datu kantitate handi baten gainean eraiki izanak ematen duen bermearekin;
- eta bestetik, generoen arteko desberdintasuna eta desberdinkeria bistaratze aldera, Azkoitian esparru desberdinetan diharduten hezitzaileei laguntzarako materiala eskaintzea.



MAPA MOREA ren hirugarren eta azken saioan izan gara, prozesuaren ondorioak ikusteko. Oso interesgarriak Patxi Galarraga arkitektoak egindako ekarpenak eta herritarren artean egin diren hausnarketak eta proposamenak.



2.5. Prozesu publikoa

Komunikabideen bitartez proiektuaren aurkezpena, deialdiak eta jarraipena egin dira.



Azkoitiko Mapa Morea osatzeko prozesua hasi du Udalak

Maxixatzen.eus | 2019-09-24

Genero ikuspegia oinarri hartuta, herriaren diagnostikoa egingo dute herritarrek, Udal ordezkariak zein ikastetxeek. Antolatzaileen helburua da herriaren ahalik eta argazki osatuena egitea, eta horretarako, zortzi arlo jorratuko dituzte han parte hartzen dutenek. Lehenengo bilera urriaren 8an egingo dute herritarrekin.

Azkoitiko Mapa Morea osatuko du Azkoitiko Udalak datozen hilabeteetan, hau da, genero ikuspegia oinarri hartuta, herriaren diagnostikoa egingo du herritarrekin, ikastetxeekin, eragileekin nahiz Udaleko ordezkari politikoeekin batera. Gaur, asteartea, aurkeztu dute prozesua Maider Urbieta Udaleko Berdintasun Zerbitzuko arduradunak, Mertxe Zubillaga Berdintasun zinegotziak eta Patxi Galarraga Azkoitiko Mapa Morearen proiektua zuzenduko duen arkitektoak.

Eusko Jaurlaritzak eta Emakunde osatutako EAEko Emakumeen eta Gizonezkoen Berdintasunaren zazpigarren planaren ardatzetako bat da Azkoitian ere abiatuko dutena, eta herrian osatuko duten mapa hirigintzaren eta generoaren inguruan sakontzen jarraitzeko lan tresna izatea nahi du Udalak: "Herriko espazioak betaurreko moreekin begiratu nahi ditugu, zer hobetu daitekeen aztertzeko", esan du zinegotziak. Ildo horretan, arkitektoak azpimarratu du Mapa Morea, helburua baino, ondorioak ateratzeko zein ikasteko tresna izango dela. Beraz, hango emaitzek eta diagnostikoak balio izango du, besteak beste, etorkizunean herrian egingo diren proiektuetan txertatzeko.

Sustatzaileen ustez, "gai transbertsala" da gizon eta emakumeen arteko berdintasunarena, eta eremu guztietan hartu behar da kontuan. Dena den, Galarragaren arabera, hirigintzan genero ikuspegia lantzen denean, batez ere emakumeen segurtasunaren esparrura mugatu ohi da. Oraingoan, ordea, ikuspegia zabaldu nahi izan dute sustatzaileek, ahalik eta diagnostiko osatuena izan dezaten. Hori hala, "emakumeen begirada" txertatuz, honako zortzi ardatz hauek jorratuz aztertuko dute udalerria: segurtasuna, arriskuen aurreko babesa, irisgarritasuna, mugikortasuna, ongizatea, denboraren kontziliazioa, hirigintzak zaintzari ematen dion arreta eta emakumeen adierazgarritasuna. Zortzi alor horiek oinarri hartuta, herriko auzoak aztertuko dituzte, eta herrigunea ere atalka bereiziko dute.

Udalak adierazi duenez, prozesu parte hartzailea izango da abiatuko dutena, eta herriko hainbat kolektiboekin modu paraleloan eramango dute aurrera. Batetik, herritarrekin batzarrak egingo dituzte, eta aldi berean, Udal ordezkariak ere beraien bidea egingo dute mapa osatzeko. Udalaren asmoa herriko ikastetxeekin ere elkartzea da, haiek ere beraien lanketa egin dezaten. "Garrantzitsua iruditzen zaigu ikuspegi desberdinak jasotzea eta horiek kontrastatzea. Izan ere, zenbat eta parte hartze anitzagoa izan, orduan eta aberatsagoa izango da mapa", azpimarratu du Galarragak.

Hori hala izanik, antolatzaileek ezinbestekotzat jo dute herritarrek, batez ere emakumeek, prozesuan ekarpenak egitea eta haiek herriaren alderdi positiboak zein negatiboak plazaratzea: "Azkoitiaren aktiboak eta hutsuneak nahiko genituzke mapan kokatzea, hortik zer ikasia izan dezagun". Hain zuzen ere, herritarrekin hiru bat saio egitea aurreikusten dute antolatzaileek, baina irekita utzi dute bidea.

Lehenengo bilera urriaren 8an izango da, 19:00etan, Elkargunean. Herritarren ekarpenak jasotzen hasiko dira orduan, eta herritar guztiei dei egin die hara bertaratu daitezen.

Adibide bezala, Maxixatzen tokiko komunikabideak Azkoitiko Mapa Morearen inguruan argitaratutakoak:

Mapa Morea lantzeko azken saioa egingo dute bihar

Maxixatzen.eus 2019-11-18 11:01 Parekidetasuna Azkoitia,



Mapa Morea lantzeko hirugarren eta azken saioa egingo dute bihar, azaroak 19, Elkargunean aukera. Herritarrekin batera, Mapa Morearen garapenean udaleko ordezkari politikoak eta teknikariak ari

Mapa Morea osatze bidean da

Maxixatzen.eus 2019-10-16 09:15 Parekidetasuna Azkoitia,



Atzo, asteartea, Mapa Morea osatzeko bigarren bilera egin zuten Elkargunean. Herriko hainbat puntu Joan den astean egin zuen Udalak Mapa Morea osatzeko lehen bilera, eta atzo, asteartea, bigarren nahiz ongizatea. Mapa osatzeko puntu garrantzitsuak zein diren nabarmendu zituzten parte hartzaileek eta

Azkoitiko Mapa Morea osatzeko bigarren bilera izango da gaur

Maxizatzen.eus 2019-10-15 09:03 Gizartea Azkoitia,



Gaur, asteartea, Azkoitiko **Mapa Morea** osatzeko bigarren bilera izango da, 19:00etan, Elkargunean Joan den astean egin zuen Udalak **Mapa Morea** osatzeko lehen bilera, eta gaur, asteartea, bigarren nahiz ongizatea. Bide desberdinetatik jasotako ekarpenak kontrastatuko dituzte **Mapa Morea** osatzerako

Herritarrak hasi dira Mapa Morea osatzen

Maxizatzen.eus 2019-10-09 10:25 Gizartea Azkoitia,



Udalak lehen bilera irekia egin du Elkargunean, eta herritarren ekarpenak jasotzen hasi da genero ikuspegia kontuan hartuta, Azkoitiaren diagnostikoa egiteko. Genero ikuspegia oinarri hartuta, **Mapa Morea** osatuko dute datozen hilabeteetan herrian, eta segurtasunari jarri ohi zaio arreta berezia, baina Azkoitiko **Mapa Morea** osatzerakoan, beste hainbat gai ere antolatzaileek. Bide

desberdinetatik jasotako ekarpenak kontrastatuko dituzte **Mapa Morea** osatzerako orduan

Azkoitiko mapa morea egiteko bilera

Maxizatzen.eus 2019-10-03 10:13 Gizartea Azkoitia,



Azkoitiko Mapa Morea osatzeko prozesua hasi du Udalak

Maxixatzen.eus 2019-09-24 15:52 Gizartea Azkoitia,



Genero ikuspegia oinarri hartuta, herriaren diagnostikoa egingo dute herritarrek, Udal ordezkariak zein ikastetxeek. Antolatzaileen helburua da herriaren ahalik eta argazki osatuena egitea, eta horretarako, zortzi arlo jorratuko dituzte han parte hartzen dutenek. Lehenengo bilera urriaren 8an egingo dute

herritarrekin. Azkoitiko Mapa Morea osatuko du

Azkoitiko Udalak datozen hilabeteetan, hau da, genero ikuspegia Zerbitzuko arduradunak, Mertxe Zubillaga Berdintasun zinegotziak eta Patxi Galarraga Azkoitiko Mapa Morearen", esan du zinegotziak. Ildo horretan, arkitektoak azpimarratu du Mapa Morea, helburua baino, ondorioak osatuko duten mapa hirigintzaren eta generoaren inguruan sakontzen jarraitzeko lan tresna izatea nahi du Udalak: "Herriko espazioak betaurreko **moreekin** begiratu nahi ditugu, zer hobetu daitekeen aztertzeko

Kartelak ere jarri ziren lehenengo saiora deitzeko:

Zatoz Azkoitiko MAPA MOREA egiteko parte-hartze bilerara!



Herriko segurtasuna, irisgarritasuna, mugikortasuna, denboraren kontziliazioa, ongizatea eta beste hainbat alderdi aztertu nahi ditugu genero ikuspegitik.

Lanketa hori egiteko zure parte-hartzea garrantzitsua delako, ondorengo parte-hartze saiora gonbidatzen zaitugu:

Eguna: Urriak 8, asteartea
Tokia: Elkargunea
Ordua: 19:00



Era berean, urtarrilean Azkoitiko Mapa Morea herritarrei azaltzeko asmoa ere badago.

3. Ondorio nagusiak

3.1. Prozesuaren ondorio nagusiak

Laburbilduz, prozesuaren inguruko ondorio nagusiak hauek lirateke.

- Udal Mahaian ordezkari politikoen partehartze maila oso altua izan da, udalean ordezkaritza duten lau alderdiek jarraitu dutelarik prozesua: hiru alderditako ordekaritzak parte-hartze presentziala egin du prozesuan, eta laugarreneko ordezkariak -lan kontuak direla eta saioetara agertu ezinik- prozesuaren jarraipena egiteko informazioa eskatu izan du.
- Era berean, arlo sozial zein kulturalako teknikarien partehartzea ere azpimarratzekoa izan da.
- Saio asko eskatzen dituzten prozesuak neketsuak izan daitezke, baina gai baten inguruan behin eta berriro jardun ezkerok ekarpen hobek jasotzen dira azken saioetan. Halaxe gertatu da bai Udal Mahaian zein sozialean.
- Mapa Morea osatzeko prozesuaren eta antzekoen beste onura bat nabarmendu da baita ere, izan ere Mahai soziala eratzeak udala eta herriko talde feminista nolabait hurbiltzeko balio izan baitu.
- Mapa Morearen prozesuak berez ez luke amaierarik behar: adibidez, mapa publiko egiten bada, geruza gehiago erantsi daitezke, bestelako informazioa bildu (kuantitatiboa, kualitatiboa), egingo diren proiektuak adierazi, egindako lanetan Mapa Moreko informazioa nola txertatu den azaldu...

3.2. Gabezia nagusiak

Aurrerago xehetasun gehiago adieraziko dira, baina hauek lirateke partaideen arabera udalerriko 10 gabezia nagusienak:

1. Floreaga: a) Auzoa eta b) Korreoseko bidegurutzea eta handik gorako aldapa
2. Ipintza
3. Santa Klara - Matadeixe ingurua
4. Txalonerreka
5. Goiko Kale - San Martin
6. San Martin auzoa
7. Plaza Berria
8. Herriko Plaza, Kale Nagusiko trafikoa
9. Azoka
10. Loiolako bidegorria

4. Hiri-Generograma

Genero Ikuspegitik partaidetzazko diagnostiko urbanoak egiteko Projekta Urbes-ek garatutako tresna da Hiri-Generograma. Era berean, formakuntza egituratzeko da baliagarri, eta baita ikasitakoak “lurrera ekartzeko” ere. Partaideak taldeetan jarrita udalerria auzoz-auzo eta ekipamenduen arabera aztertzen dute galdetegi bati jarraituz; gunehorietako bakoitza 10 ardatzen arabera zenbatesten dute, emaitza “radar-chart” moduko grafikoen gainean jartzen delarik.


Hiri-Generogramak Genero Ikuspegitik auzoak elkarren artean konparatzeko balio du, eta foro (Udal Mahaia, Mahai soziala, herritarrak...), garai edo prozesu desberdinetan egindako diagnostikoak elkarrekin alderatzea ahalbidetzen duen tresna ere bada.

4.1. Genero Ikuspegia hirigintzan, 8 ardatzetan

Azkoitiko Mapa Morea espazio publikoaren inguruko proiektua denez, 10 ardatzen artean 2 kentzea erabaki da, hain zuzen etxebizitzari eta jarduera ekonomikoari dagozkienak:

- **Segurtasuna erasoen eta mehatxuen aurrean.**
- **Babesa arriskuen eta kalteen aurrean.**
- **Irisgarritasun unibertsala.**
- **Oinezkoa eta mugikortasun jasangarria.**
- Baliabideetara irismena: Etxebizitza.
- **Baliabideetara irismena: Ongizaterako ekipamendu eta baliabideak.**
- Baliabideetara irismena: Jarduera ekonomikoak.
- **Denboren erabilerak eta hauen kontziliazioa.**
- **Lan erreproduktiboa eta zaintza-lanak.**
- **Adierazgarritasun erreala eta sinbolikoa.**

Jarraian jaso dira partehartze prozesuan zehar ardatz bakoitzaren inguruan partaideei proposatu zaizkien irizpideak, formakuntza barneratzeko zein guneen diagnostikoa osatzeko.

Erasoekiko segurtasuna Seguridad frente a agresiones	Genero Ikuspegia hirigintzan Perspectiva de Género en urbanismo			
	<p>1 Espazio publikoek inguruko etxebizitza eta establezimenduetatik berezko zaintza jasotzen dute.</p> <p>Los espacios públicos cuentan con vigilancia natural desde las viviendas y los establecimientos del entorno.</p>	<p>2 Erabileren nahasketaren eraginez espazio publikoan etengabe jendea dago eta dabil, egun osoan zehar.</p> <p>La mezcla de usos genera en el espacio público la presencia y el paso continuo de personas a lo largo de todo el día.</p>	<p>3 Ez dago ezkutalekurik, ikuseremuak zabalak dira eta argiztapena egokia da ibiltarientzat.</p> <p>No hay escondites, los campos visuales son amplios y la iluminación es adecuada para caminantes.</p>	<p>4 Nahitaezko pasabideak modu egokian landu dira, segurtasun-pertzepzioa areagotuz.</p> <p>Los puntos de paso obligados se han tratado de forma adecuada, incrementando la percepción de seguridad.</p>

Babesa Protección	Genero Ikuspegia hirigintzan Perspectiva de Género en urbanismo			
	<p>1 Trafikoa murrizteko eta honen abiadura mantsotzeko neurriak daude.</p> <p>Existen medidas de disuasión del tráfico y reducción de su velocidad.</p>	<p>2 Oinezko, bizikleta, kotxe eta beste ibilgailuek modu seguruan partekatzen dituzte kaleak.</p> <p>Peatones, bicicletas, coches y otros vehículos comparten las calles en condiciones de seguridad.</p>	<p>3 Auzoa babestuta dago industriak, trafikoak, ostalaritzak eta abarrek eragiten dituzten kalteetatik.</p> <p>El barrio está protegido de los efectos negativos que generan el tráfico, la industria, la hostelería, etc.</p>	<p>4 Espazio publikoaren diseinuak aisialdi-jarduerak eta jolasa gainontzeko jarduerekin bateragarri egiten ditu, segurtasun baldintza egokietan.</p> <p>El diseño de los espacios públicos hace compatibles las actividades de ocio y juego con el resto, en condiciones de seguridad.</p>

Irisgarritasuna
Accesibilidad

Genero Ikuspegia hirigintzan
Perspectiva de Género en urbanismo



1
Mugikortasun urriko pertsonen irisgarritasun fisikoa bermatzen da.
—
Se garantiza la accesibilidad física de las personas con movilidad reducida.

2
Ikusmen eta entzumen urriko pertsonen irisgarritasun sensoriala bermatzen da.
—
Se garantiza la accesibilidad sensorial de las personas con deficiencia visual y auditiva.

3
Ulermen arazoak dituzten pertsonen (Alzheimer, autismoa...) irisgarritasun kognitiboa kontuan hartu da.
—
Se ha considerado la accesibilidad cognitiva de las personas con dificultades de comprensión (Alzheimer, autismo...)

4
Oztoporik ez izateaz gainera, irisgarritasun autonomoa babesteko elementu egokiak daude, kokapen egokietan: eserlekuak, iturriak, komunak...
—
Además de no existir barreras, existen elementos adecuados de apoyo a la accesibilidad autónoma, en ubicaciones adecuadas: bancos, fuentes, aseos...

Mugikortasuna
Movilidad

Genero Ikuspegia hirigintzan
Perspectiva de Género en urbanismo



"Kotxea debekatzea ez da irtenbidea: kotxeak gonbidatua izan behar du, ez anfitrioi."
"Prohibir el coche no es la solución: el coche debe ser un invitado, no anfitrión." (Marius Navazo)

1
Oinezko mugikortasun-sarea lehenetsia, jarraia, irisgarria eta eroso da, zuzeneko ibilbideak ahalbidetuz.
—
La red de movilidad peatonal es prioritaria, continua, accesible y confortable, permitiendo recorridos directos.


2
Bizikletaren erabilerara sustatzen duten neurriak daude.
—
Existen medidas de fomento del uso de la bicicleta como vehículo.

3
Garraio publikoaren sarea egokia da, bai auzoan bertan eta baita beste auzoekin eta udalerriekin loturan ere.
—
La red de transporte público es adecuada, tanto dentro del barrio como en su conexión con otros barrios y municipios.

Mugikortasuna
Movilidad

Genero Ikuspegia hirigintzan
Perspectiva de Género en urbanismo

Diseinatu duzun trafikoa daukazu.
Tienes el tráfico que diseñas.



4
Auzo honek ibilgailurik gabeko bizimodua ahalbidetzen du.

—
Este barrio permite una vida independiente del coche.

5
Auzoko aparkaleku kopurua gutxienera doitu dago.

—
La dotación de aparcamientos del barrio está ajustada al mínimo.

6
Ibilgailuen aparkalekurako eta zirkulaziorako espazioa ez zaio oinezkoen espazioei nagusitu.

—
El espacio destinado al aparcamiento y circulación de coches no se impone sobre los espacios peatonales.

Ongizatea
Bienestar

Genero Ikuspegia hirigintzan
Perspectiva de Género en urbanismo



1
Eroso esertzeko, atsedean hartzeko eta auzoko bizitzan parte hartzeko espazioak daude.

—
Existen espacios para sentarse, relajarse y participar de la vida del barrio en condiciones confortables.

2
Topaketa eta harreman sozial barneratzaileak sustatzen dituzten inguruneak daude.

—
Existen entornos que fomentan el encuentro y las relaciones sociales inclusivas.

3
Jarduera fisiko barneratzailea (kirola, paseatzea, jolasa...) sustatzen duten ingurune daude.

—
Existen entornos que fomentan la actividad física inclusiva: deporte, paseo, juego...

Kontziliazioa Conciliación	Genero ikuspegia hirigintzan Perspectiva de Género en urbanismo				
<p>1</p> <p>Lan-gune garrantzitsuenak auzoarekin ondo konektatuta daude, kotxearekiko menpekotasunik gabe.</p> <p>—</p> <p>Los principales centros de trabajo están bien conectados con el barrio, sin dependencia del coche.</p>	<p>2</p> <p>Ekipamendu eta zerbitzu publiko nagusiak auzoarekin ondo konektatuta daude, kotxearekiko menpekotasunik gabe.</p> <p>—</p> <p>Los principales equipamientos y servicios públicos están bien conectados con el barrio, sin dependencia del coche.</p>	<p>3</p> <p>Ekipamendu txiki eta zerbitzu publikoen dotazioa nahikoa eta anitza da.</p> <p>—</p> <p>La dotación de pequeños equipamientos y servicios públicos es suficiente y diversa.</p>	<p>4</p> <p>Auzo-saltoki txikien dotazioa nahikoa eta anitza da.</p> <p>—</p> <p>La dotación de pequeños comercios de cercanía es suficiente y diversa.</p>	<p>5</p> <p>Etxebizitza, lantoki, ekipamendu eta saltokien arteko desplazamenduak uztartzea erraza da.</p> <p>—</p> <p>Es fácil encadenar desplazamientos entre la vivienda, los centros de trabajo, los equipamientos y los comercios.</p>	

Zaintza lanak Trabajos de cuidado	Genero ikuspegia hirigintzan Perspectiva de Género en urbanismo				
<p>1</p> <p>Espazio publikoak zaintza lanetarako ondo hornituta daude: komunak, eserlekuak, iturriak, aterpeak...</p> <p>—</p> <p>Los espacios públicos están bien equipados para los trabajos de cuidado: aseos, bancos, fuentes, cobijo...</p>	<p>2</p> <p>Auzo honek menpekotasuna duten pertsona adinduen autonomia sustatzen eta bere zaintza errazten du.</p> <p>—</p> <p>Este barrio fomenta la autonomía de las personas mayores dependientes y facilita su cuidado.</p>	<p>3</p> <p>Auzo honek haurren autonomia sustatzen eta bere zaintza errazten du.</p> <p>—</p> <p>Este barrio fomenta la autonomía de niñas y niños, y facilita su cuidado.</p>	<p>4</p> <p>Ekipamenduek zaintza lanetarako (komunak, elikatzea, itxarotea...) espazio nahikoak eta egokiak dituzte, barnean eta kanpoan.</p> <p>—</p> <p>Los equipamientos cuentan, en su interior y exterior, con espacios suficientes y adecuados para los trabajos de cuidado (aseos, alimentación, espera...)</p>	<p>5</p> <p>Ekipamenduak multifuntzionalak dira eta behar anitzetara egokitu daitezke.</p> <p>—</p> <p>Los equipamientos son multifuncionales y pueden adaptarse a necesidades diversas.</p>	

Adierazgarritasuna
Representatividad

Genero ikuspegia hirigintzan
Perspectiva de Género en urbanismo



1
Lan erreproduktiboa hartzen duten espazioak zaindu eta aintzat hartu dira.

Los espacios en los que se realiza el trabajo reproductivo están cuidados y reconocidos.

2
Kale-izendegia, seinaleztapena eta hiri-paisaia ez dira ez sexistak eta ezta diskriminatzaileak ere.

El callejero, la rotulación y el paisaje urbano del barrio no son sexistas ni discriminatorios.

3
Emakumeen eta lan erreproduktiboarekin lotutako jardueren eta gertakizunen memoria jasotzen da.

Se evoca la memoria de mujeres, actividades y eventos relacionados con el trabajo reproductivo.

4
Hiri-paisaia zainduta dago eta kalitatezkoa da.

El paisaje urbano está cuidado y es de calidad.

4.2. Auzoen diagnostikoa formakuntza saioan zehar

Azpian jaso da formakuntzaren bitartean partaideen artean banatutako orria, ardatz bakoitza deskribatu ahala auzoen diagnostikoa egiteko erabili ahal izaten dutena:

Azkoitiko Mapa Morea Auzoen diagnostikoa Diagnóstico de barrios	
Saioa Sesión	
Sexua Sexo	
Adina Edad	
Ba al daukazu desgaitasun larriren bat? ¿Tienes alguna discapacidad grave?	
Ba al daukazu haurrik zure zaintzapean? ¿Te encargas del cuidado de alguna niña o niño?	
Ba al daukazu adinekorik edo menpekotasuna duen inor zure zaintzapean? ¿Te encargas del cuidado de alguna persona de edad avanzada o en situación de dependencia?	
Azkoitian bizi al zara? ¿Vives en Azkoitia?	
Non bizi zara? ¿Dónde vives?	
Beste auzo bat erantsi nahi baduzu, jarri hemen bere izena. Si quieres añadir otro barrio, escribe aquí su nombre.	
-3 -2 -1 0 +1 +2 +3	
SEGUR	BABES PROTEC
IRISG ACCES	MUGIK MOVIL
ONGIZ BIENES	KONTZ CONCIL
ZAINTZ CUIDAD	ADIERA REPRES
Erdigunea: Alde Zaharra // Casco Antiguo	
Erdigunea: Zabalgunea // Ensanche	
Floreaga	
Auzmendibidea	
Trenbidearen Zumardia	
San Martin	
Altzibar	
Txalonerreka	
Ipintza	
Landa-auzoak // Barrios rurales	
ERANTSIA / AÑADIDO	

4.3. Online galdetegia auzoen diagnostikoa egiteko

Formakuntza eman bitartean edota baita hurrengo egunetan ere, saioko partaideek eta beste edozein herritarrek diagnostikoan parte hartzeko aukera izaten du. Galdetegi honen helburua ez zen hainbeste datuak biltzea, formakuntzan esandakoak egonkortzea eta zabaltzea baizik.

Galdetegira esteka: labur.eus/AMM1

AZKOITIKO MAPA MOREA: Auzoak /// Barrios

Genero ikuspegitik Azkoitiko auzoen diagnostikoa osatzeko galdetegia.

///

Formulario para la elaboración del diagnóstico de barrios de Azkoitia desde la Perspectiva de Género.

AZKOITIKO MAPA MOREA: Auzoak /// Barrios

Genero ikuspegitik Azkoitiko auzoen diagnostikoa osatzeko galdetegia.

///

Formulario para la elaboración del diagnóstico de barrios de Azkoitia desde la Perspectiva de Género.

*Obligatorio



Saioa /// Sesión *

Elige —

Hasieran partaideen oinarrizko datu batzu eskatzen ditu galdetegiak, datuak banakatze aldera:

Partaidearen datuak /// Datos de la persona participante

Informazio honek galdetegiaren emaitzak ulertzen lagunduko digu. Mila esker emateagatik.
///
Esta información nos ayudará a comprender los resultados de la encuesta. Gracias por aportarla.

Sexua /// Sexo *

- Emakumea /// Mujer
- Gizona /// Hombre
- Beste bat /// Otro

Adina /// Edad *

- 11-17
- 18-24
- 25-44
- 45-64
- 65-74
- +75

Ba al daukazu desgaitasun larriren bat? ///
¿Tienes alguna discapacidad grave? *

- BAI /// SI
- EZ /// NO

Ba al daukazu haurrik zure zaintzapean? /// ¿Te
encargas del cuidado de alguna niña o niño? *

- BAI /// SI
- EZ /// NO

Ba al daukazu adinekorik edo menpekotasuna
duen inor zure zaintzapean? /// ¿Te encargas del
cuidado de alguna persona de edad avanzada o
en situación de dependencia? *

- BAI /// SI
- EZ /// NO

Azkoitian bizi al zara? /// ¿Vives en Azkoitia? *

- BAI /// SI
- EZ /// NO
- EZ, baina astean ordu asko ematen dut hemen /// NO,
pero paso aquí muchas horas a la semana.

Non bizi zara? /// ¿Dónde vives?

- Azkoitik kanpo /// Fuera de Azkoitia.
- Erdigunea: Alde Zaharra // Casco Antiguo
- Erdigunea: Zabalgunea /// Ensanche
- Floreaga
- Auzmendibidea
- Trenbidearen Zumardia
- San Martin
- Altzibar
- Txalonerrika
- Ipintza
- Otro: _____

AUZOEN DIAGNOSTIKOA /// DIAGNÓSTICO DE BARRIOS

OHARRAK:

1. Saio honetan auzoen diagnostiko orokorra egingo dugu: hurrengo saioan izango duzu puntu zehatzei buruzko informazioa emateko aukera.
2. Telefono mugikorraren bitartez ari bazara, jarri horizontalean: puntuak emateko -3 eta +3 arteko aukerak ikusi behar zenituzke.
3. Auzoen zerrendan beste bat erantsi nahi izatekotan, hurrengo galderan daukazu aukera.

///

AVISOS:

1. En esta sesión vamos a realizar el diagnóstico global de barrios: podrás ofrecer información sobre puntos concretos en la siguiente sesión.
2. Si estás con el teléfono móvil, ponlo en horizontal: deberías tener a la vista las opciones para puntuar entre -3 y +3.
3. Si quisieras añadir otro barrio en la lista de barrios, puedes hacerlo en la siguiente pregunta.

Beste auzo bat erantsi nahi baduzu, jarri hemen bere izena. /// Si quieres añadir otro barrio, escribe aquí su nombre.

Tu respuesta

Aurrerago erantzun beharreko galdera guztietan, auzoen balorazioa egiteko eskatzen zaie galdetegia betetzen dutenei. Balorazioak oso negatibotik hasi (-3) eta oso positiborainokoak izan daitezke (+3):

	-3	-2	-1	0	+1	+2	+3
Erdigunea: Alde Zaharra // Casco Antiguo	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Erdigunea: Zabalgunea // Ensanche	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Floreaga	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Auzmendibidea	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Trenbidearen Zumardia	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
San Martin	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Altzibar	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Txalonerreka	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Ipintza	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Landa-eremuak // Barrios rurales	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
ERANTSIA / AÑADIDO	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>



Segurtasuna /// Seguridad

1. Espazio publikoek inguruko etxebizitza eta establezimenduetatik berezko zaintza jasotzen dute.
2. Erabileren nahasketaren eraginez espazio publikoan etengabe jendea dago eta dabil, egun osoan zehar.
3. Ez dago ezkutalekurik, ikuseremuak zabalak dira eta argiztapena egokia da ibiltarientzat.
4. Nahitaezko pasabideak modu egokian landu dira, segurtasun-pertzepzioa areagotuz.

1. Los espacios públicos cuentan con vigilancia natural desde las viviendas y los establecimientos del entorno.
2. La mezcla de usos genera en el espacio público la presencia y el paso continuo de personas a lo largo de todo el día.
3. No hay escondites, los campos visuales son amplios y la iluminación es adecuada para caminantes.
4. Los puntos de paso obligados se han tratado de forma adecuada, incrementando la percepción de seguridad.



Babesa /// Protección

1. Trafikoa murrizteko eta honen abiadura mantsotzeko neurriak daude.
 2. Oinezko, bizikleta, kotxe eta beste ibilgailuek modu seguruan partekatzen dituzte kaleak.
 3. Auzoa babestuta dago industriak, trafikoak, ostalaritzak eta abarrek eragiten dituzten kalteetatik.
 4. Espazio publikoaren diseinuak aisialdi-jarduerak eta jolasa gainontzeko jarduerekin bateragarri egiten ditu, segurtasun baldintza egokietan.
-
1. Existen medidas de disuasión del tráfico y reducción de su velocidad.
 2. Peatones, bicicletas, coches y otros vehículos comparten las calles en condiciones de seguridad.
 3. El barrio está protegido de los efectos negativos que generan el tráfico, la industria, la hostelería, etc.
 4. El diseño de los espacios públicos hace compatibles las actividades de ocio y juego con el resto, en condiciones de seguridad.



Irigarritasuna /// Accesibilidad

1. Mugikortasun urriko pertsonen irigarritasun fisikoa bermatzen da.
 2. Ikusmen eta entzumen urriko pertsonen irigarritasun sentsoriala bermatzen da.
 3. Ulermen arazoak dituzten pertsonen (Alzheimerra, autismoa...) irigarritasun kognitiboa kontuan hartu da.
 4. Oztoporik ez izateaz gainera, irigarritasun autonomoa babesteko elementu egokiak daude, kokapen egokietan: eserlekuak, iturriak, komunak...
-
1. Se garantiza la accesibilidad física de las personas con movilidad reducida.
 2. Se garantiza la accesibilidad sensorial de las personas con deficiencia visual y auditiva.
 3. Se ha considerado la accesibilidad cognitiva de las personas con dificultades de comprensión (Alzheimer, autismo...).
 4. Además de no existir barreras, existen elementos adecuados de apoyo a la accesibilidad autónoma, en ubicaciones adecuadas: bancos, fuentes, aseos...



Mugikortasuna /// Movilidad

1. Oinezko mugikortasun-sarea lehenetsia, jarraia, irisgarria eta eroso da, zuzeneko ibilbideak ahalbidetuz.
2. Bizikletaren erabilerara sustatzen duten neurriak daude.
3. Garraio publikoaren sarea egokia da, bai auzoan bertan eta baita beste auzoekin eta udalerriekin loturan ere.
4. Auzo honek ibilgailurik gabeko bizimodua ahalbidetzen du.
5. Auzoko aparkaleku kopurua gutxienera doitu dago.
6. Ibilgailuen aparkalekurako eta zirkulaziorako espazioa ez zaio oinezkoen espazioei nagusitu.

1. La red de movilidad peatonal es prioritaria, continua, accesible y confortable, permitiendo recorridos directos.
2. Existen medidas de fomento del uso de la bicicleta como vehículo.
3. La red de transporte público es adecuada, tanto dentro del barrio como en su conexión con otros barrios y municipios.
4. Este barrio permite una vida independiente del coche.
5. La dotación de aparcamientos del barrio está ajustada al mínimo.
6. El espacio destinado al aparcamiento y circulación de coches no se impone sobre los espacios peatonales.



Ongizatea /// Bienestar

1. Eroso esertzeko, atseden hartzeko eta auzoko bizitzan parte hartzeko espazioak daude.
2. Topaketa eta harreman sozial barneratzaileak sustatzen dituzten inguruneak daude.
3. Jarduera fisiko barneratzailea (kirola, paseatzea, jolasa...) sustatzen duten ingurune daude.
4. Garapen pertsonal eta komunitarioarako ekipamendu egokiak (aisialdia, kultura, kirola, heziketa...) daude.
5. Elementu naturalekin edo natura/landa-ingurunearekin lotuta dago: fisikoki, bistara...
6. Espazio publikoetan elementu naturalak txertatu dira: landaretza, ura...
7. Elikadura eta kontsumo osasungarriak sustatzen dituzten inguruneak daude.

1. Existen espacios para sentarse, relajarse y participar de la vida del barrio en condiciones confortables.
2. Existen entornos que fomentan el encuentro y las relaciones sociales inclusivas.
3. Existen entornos que fomentan la actividad física inclusiva: deporte, paseo, juego...
4. Existen equipamientos adecuados para el desarrollo personal y comunitario (ocio, cultura, deporte, educación...).
5. El barrio está conectado con elementos naturales o el entorno natural-rural: físicamente, visualmente.
6. En los espacios públicos se han incorporado elementos naturales: vegetación, agua...
7. Existen entornos que fomentan la alimentación y consumos saludables.



Kontziliazioa /// Conciliación

1. Lan-gune garrantzitsuenak auzoarekin ondo konektatuta daude, kotxearekiko menpekotasunik gabe.
2. Ekipamendu eta zerbitzu publiko nagusiak auzoarekin ondo konektatuta daude, kotxearekiko menpekotasunik gabe.
3. Ekipamendu txiki eta zerbitzu publikoen dotazioa nahikoa eta anitza da.
4. Auzo-saltoki txikien dotazioa nahikoa eta anitza da.
5. Etxebizitza, lantoki, ekipamendu eta saltokien arteko desplazamenduak uztartzea erraza da.

--

1. Los principales centros de trabajo están bien conectados con el barrio, sin dependencia del coche.
2. Los principales equipamientos y servicios públicos están bien conectados con el barrio, sin dependencia del coche.
3. La dotación de pequeños equipamientos y servicios públicos es suficiente y diversa.
4. La dotación de pequeños comercios de cercanía es suficiente y diversa.
5. Es fácil encadenar desplazamientos entre la vivienda, los centros de trabajo, los equipamientos y los comercios.



Zaintza lanak /// Trabajos de cuidado

Oinezkoentzako ibilbide sare berariazkoa, lehenetsia, segurua eta eroso ezartzea, ibilbide labur eta zuzenak alternatiba irisgarrien bitartez osatuko dituenak.

Kotxearentzako espazioa gutxienekora mugatzea, asfaltoa murriztuz.

Trafikoaren abiadura baretzeko neurriak ezartzea. Besteak beste honako gida hau aztertzea proposatzen da: "Calmar el tráfico. Pasos para una nueva cultura de la movilidad urbana" (Ministerio de Fomento, 2008).

Eskola Bideen proiektu bat gauzatzea. Eskola-gunea dela ikusirik, Eskola Bideen proiektu bat diseinatzea eta gauzatzea. Helburuak:

- Ikasleen autonomia sustatzea, zaintzaileek denbora irabazten dutelarik.
- Ikastetxeen ingurunean segurtasuna areagotzea kotxeen joan-etorrien kopurua eta abiadura murriztuz.
- Ikastetxeen inguruan kotxe kopurua eta hauen abiadura murrizteko neurriak abian jartzea.
- Helburu izateaz gain, Eskola Bideak sustatzea tresna modura baliatzea proposatzen da: ezarritako neurrien eraginkortasuna eta onurak nabarmenduz, trafikoa baretzeko eta murrizteko ekintzak pixkanaka herri osora zabaltzeko tresna litzateke beraz Eskola Bideen proiektua.

Osasun Sailak diruz laguntzen ditu Eskola Bideen proiektuak, baldin eta parte-hartze komunitarioan oinarritutako proiektuak badira:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/caminos_escolares/eu_def/adjuntos/eskolabidea-eu.pdf

Bi dirulaguntza lerro balia daitezke honetarako:

- Udalei (292.000 euro 2019an): <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2019/06/1903169e.pdf>
- Ikastetxeetako Guraso Elkarteei (94.000 euro 2019an): <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2019/10/1904474e.pdf>



amm02	Ipintza auzoa
Kokapena, helbidea Ubicación, dirección	Ipintza
Koordenatuak Coordenadas	43.167778, -2.326527
Street View	https://goo.gl/maps/tFwE8xm3YTMvxTck7

Parte-hartzea		
Parte-hartze foroak Foros de participación	Aipamen positiboak Menciones positivas	Ekarpen negatiboak Aportaciones negativas
Udal-Mahaia	Auzoa: Argiztapena, parke ona, lasaitasuna, berdegunea, bidegorrira sarrera. Auzora bidea: Egunez bide lasaia paseorako.	Auzoa: Zubillagako zarata, auzora iristeko bidea. Auzora bidea: Oinezkoentzat bide desegokia, bakartia eta iluna. >> Auzora iristeko bidea hobetu, argi gehiago jarri.
Mahai sozialak	MS1	--
	MS2	--
	MS3	--
Herritarren galdetegia	--	--

Diagnostiko teknikoa

Ipintza herrigunetik aparte dago eta bertara daraman bidea luzea egiten da:

- Herriko Plazatik Altzibarrera (Anaitasuna Plazara) 570 metroko tartea dago (7-8 minutu¹).
- Anaitasuna Plazatik Ipintzarainoko distantziak aurrekoa bikoizten du (1.140m, 15-16 minutu, Baldatik Maxiko sarrerara bezainbeste).
- Kontuan hartu behar da beraz Herriko Plazatik Ipintzara 22-24 minutu inguruko bidea dagoela.

Ibilbidea desatsegina da, "ez-leku" gune luzeak zeharkatzeaz gain, tarte luze batez errepide baten trafikoaren ondo-ondotik doalako.

Segurtasun-pertzepzioa baxua da, batez ere bidea bakartia delako eta tarte batean argiztapena falta delako. Ibilbidearen bigarren erdian berezko zaintza bakarra trafikoari dagokio.

Trafikoarekiko babesa

Igogailuak. EUSTATen arabera, 2016an Ipintzako etxebizitzien %50ak soilik dauka igogailua bere eraikinean (16/32). Hain zuzen, 3B eta 5B zenbakietan legoke arazoa.

¹ Oinezko ibilbideen denborak kalkulatzeko 4,50 km/orduko abiadura hartu da oinarri.



Altzibar eta Ipintza arteko bidea behin baino gehiagotan aipatu da prozesuan zehar. Tartez-tarte hainbat gabezia antzeman daiteke ibilbidean. Adibidez:

- Altzibar 41ean hasi eta Patxiku jatetxearen pareraino espaloia ez da nahikoa zabal, aparkaleku baten ondotik doa (oso kontuan hartu beharrekoa), farolak altuegiak dira eta gainera gehienetan zuhaitzen ostoeak argitasuna kentzen dute.



- Itsasagan Gerdau aldera daraman sarbideaz gain, Ipintzara daraman bidegurutzera bitartean espaloiak beste bi etenaldi dituela ibilgailuentzako sarbideak direla eta (Garbigunea, Aldundiaren lurzatia).





Proposamen teknikoa

Auzoa biziberritzeko tresnak esploratzea, udalez kanpoko finantzaketa-bideak barne. Helburu zehatzak:

- Falta diren eraikinetan igogailua jartzea.
- Isolamendu termikoa hobetzea.

Auzoko taberna izan zen lokala udal-ekipamendu bilakatzeko bideak miatzea. Aukerarik dagoela ikusiko balitz, hausnarketa auzotarrekin batera egitea proposatzen da.

- Helburua: auzotarrei topaleku bat eskaintzea.
- Ekidin nahi diren kalteak: isolamendu soziala batez ere.

Proposamen hau Ereñotzun zabaldu den “auzo-dendarekin” lotu daiteke, jakinik askoz ere biztanle gehiago direla han Ipintzan baino. Informazio gehiago: <https://labur.eus/Erenotzu-denda>



GI-631 errepidearen eta auzoaren arteko bidean nolabait oinezkoak babesteko lanak egin. Azpian jarri den adibidean:

- Kotxei dagokion bidea asfaltozkoa da, zabalera ibilgailu bakarrenera doituz. Banda islatzaileak baden moteltzaileak sarri jarri dira.
- Oinezkoentzako bidea hormigoi inprimatu gorrizkoa da, galtzada-harriaren testuraz (berez asfaltoarengandik bereiztea ez da hain beharrezkoa). Bidean zehar nahiko eserleku jarri da.
- Bi bideen artean banda islatzaileak gomazko bereizgailuak jarri dira, aurrez-aurre topo egin duten kotxeak gurutzatzea eragozten ez dutenak.
- Argiztapena oinezkoen beharretara doitu da: farolak altura baxukoak dira eta sarri jarrita daude.



Kardeotik La Arenara doan bidea, Zierbenan.



Aurreko adibidean baino baliabide gutxiagorekin, landa-bideetan segurtasuna areagotzeko proposamenen adibideak Oman (ezkerrean) eta Ajangizen (eskuinean).

amm03	Santa Klara - Matadeixe ingurua
Kokapena, helbidea Ubicación, dirección	Santa Klara
Koordenatuak Coordenadas	43.178278, -2.304559
Street View	https://goo.gl/maps/9V12FbrXWa8N4qb78

Parte-hartzea		
Parte-hartze foroak Foros de participación	Aipamen positiboak Menciones positivas	Ekarpen negatiboak Aportaciones negativas
Udal-Mahaia	--	Santa Klara eta San Jose artean espaloi estua, argi gutxi, trafikoaren abiadura altua. >> Espaloia zabaldu, argi gehiago jarri.
Mahai sozialak	MS1	--
	MS2	--
	MS3	--
Herritarren galdetegia	--	-- Santa Klara kaleko bukaera. Bakartia, iluna. -- Santa Klara komentutik Bizkargi plazara dagoen zubi txikia eta matadeitik muno aldera dagoen pasadizoa. Baztertua. -- Santa klaratik San Jose egoitzara bidea. Iluna eta zikina urbanizazio eskasari esker. Juergak izaten dira larunbatetan.

Diagnostiko teknikoa

Santa Klaratik San Josea doan bidea oinezkoentzako desegokia da. Inguruko paisaia kotxeek menperatzen dute, espaloia alde bakarrean dagoelarik. Gainera, espaloia zenbait tartetan ez da nahikoa zabal eta parte-hartze saioetan jasotakoaren arabera argiztapen maila baxua da. Honi gehitu behar zaio errepidean ez dela nahikoa neurri ezarri kotxeen abiadura murrizteko.

Honetaz gain, karrozeriaren eta linterneraren aurrean kotxeak sarritan egoten dira aparkatuta espaloi gainean. Irisgarritasuna mugatzeaz gain, horrelako inguruneetan modu desegokian aparkatutako kotxeen ondotik iragan beharrak segurtasun ezaren pertzepzioa areagotzen du.



Matadeixe. Parte-hartze prozesuan leku honen inguruko ekarpen gehienek gune honen beharra azpimarratzen zuten eta bere funtzioa defendatzen zuten. Honetan udalarekin desadostasunak badaudela ere jaso zen. Genero Ikuspegitik komunitateak bere kabuz baliabideak sortu eta kudeatzea modu posiboan baloratzen da, beti ere ikuspegi komunitario horretan inklusibotasuna eta ekitatea txertatzeko ahaleginak egiten badira.



Ibilbideak badu bere garrantzia, hainbat etxebizitza herriarekin lotzeaz gain, San Jose egoitzara edo igerilekura joateko herriko biztanle askorentzat biderik egokiena litzatekelako. Azken bi ekipamendu hauek esanguratsuak dira Genero Ikuspegitik. Batetik, egoitzari dagokionez -eta berariazko kontaketa egin ez den arren- bertara bisitan joaten diren gehienak emakumeak izango direlako. Bestetik, igerilekuari dagokionez -eta honetan ere kontaketa baten daturik gabe- erabiltzaileen parte handi bat haur eta gaztetxoek osatuko dutenez, ibilbidea babesik gabea dela antzematen den heinean, seme-alabak laguntzeko beharra sortuko da. Haurrek autonomia galtze horretatik eratorriko da zaintzaileek denbora-errenta galtzea, dakigun bezala emakumeei eraginez gizoni baino gehiago.



Hiri-plangintzaren epe amaigabeen edota luze jotzen duten lanen aurrean, pertsonen bizitza dago. Genero Ikuspegia ere bada pertsonon denborari erantzuna ematea, plangintza edo obrak egiten diren denbora-bitartek horri ere irtenbidea ematea alegia.

Proposamen teknikoak

Ingurune osorako plan bat osatu epe motzera. Epe luzera planen bat egon egongo dela pentsatzen da, baina epe motzera edo ertainera, urteak edo hamarkadak pasa bitartean, kale honek merezi luke esku-hartze bat. Goian aipatutakoaren harira, behin-betiko proiektuak eta obrak iritsi bitartean, jendearen bizitzetara hobeto egokitu behar lirateke kaleak.

Trafikoa baretu. Diseinuaren eta esku-hartze fisikoen bitartez trafikoaren abiadura baretuko duen neurri eraginkorrak ezartzea proposatzen da.

Aparkatzea eragotzi. Karrozeriaren eta linterneriaren aurrean aparkatzea eragotzi beharko litzateke.

Ibilbidea oinezkoentzako hobetu. Besteak beste argiteria hobetuz edota bankuak jarriz.

Karrozeriaren ondoren espaloia estutzen duen orma atzeratu. Seguru asko landu den gaia izango da, baina jabeekin tratu batetara iritsi eta espaloia zabaldu beharko litzateke.

Matadeixe. Gai honen inguruan ekarpen bat egitekotan, pasa den urtean egindako honoko lanketa interesgarri hauek proposatzen dira: Bherria (<https://bherria.eus/eu/>) eta BherriLab (<https://bherria.eus/eu/bherrilaba/>) prozesuetan.

BIDEOAK



DOKUMENTUAK

BherriLab-ean zehar, hainbat esperientzia, eredu eta baliabide batu ditugu, ekipamendu publikoen kudeaketa komunitarioan interes handikoa direnak, hain zuzen. Kontsulta ezazu dokumentuen bilduma hau, Bherria-ko herri-laborategian landutako lau eremuen arabera antolatuta: esparru juridiko-administratiboa, lankidetzeta publiko-soziala, lagatze irizpideak eta ebaluazio-adierazleak.

amm04	Txalonerreka
Kokapena, helbidea Ubicación, dirección	Txalonerreka
Koordenatuak Coordenadas	43.173244, -2.312575
Street View	https://goo.gl/maps/LnjYRb5ZMUmfZgDZ7

Parte-hartzea		
Parte-hartze foroak Foros de participación	Aipamen positiboak Menciones positivas	Ekarpen negatiboak Aportaciones negativas
Udal-Mahaia	Txalonerrekara bidea: erdigunetik gertu, irisgarritasuna.	Txalonerrekara bidea: bakartia, iluna.
Mahai sozialak	MS1	--
	MS2	--
	MS3	--
Herritarren galdetegia	Barrio Franco: lasaitasuna.	Ibaiondo kaletik Txalonerreka auzora doan bidea. Bakartia, babesik gabea.

Diagnostiko teknikoa

Isolatua dagoen auzoa da. Honek ez du esan nahi urrun dagoenik, izan ere Ñam Ñametik hurbilago dago Txalonerrekako lehenengo etxea (2. zenbakia 415 metrotara dago) Balda Plaza baino (465 metrotara). Arazoa gehiago legoke bidearen ezaugarrietan: jarduerarik gabeko inguruneetan zehar doa ibilbidea, eta horren harira ulertu beharko lirateke parte-hartzaileek segurtasun-eza edo argiztapen maila baxua aipatzea.



Posible da bidean eraikiko diren etxebizitza eraikinek gutxi laguntzea ibilbidea seguruagoa bezala antzemate aldera. Izan ere, irudian ikus daitekeen bezala eraikinaren beheko solairua nahiko itsua baita ibilbide aldera (beste alderantz, hegoalderantz zabaltzen dira etxebizitzak), eta hortaz herritik auzora doan pertsona bat orma bati eta aparkatutako kotxe-lerro baten artetik pasatzea egokituko zaio.



Izarraitz Lanbide Heziketara eta Azkoitia BHI aldera daraman bidea osatu gabe dago. Honek batez ere (neska) gazteei eragiten die, modu zuzenean Altzibar, Jausoro, Goiko Kale edota Txalonerrekan bizi direnei.



Urbanue auzora iristen da. Ordutegien informazioaren faltan, Genero Ikuspegitik balorazioa positiboa da.

Hasieratik amaierara, ingurunearen paisaia trafikoak hartzen du mende. Bereziki da oinezkoentzat desegokia San Martin eta Ibaiondo kaleetako bidegurutzea, zubiaren ondoan. Zebrabideak ibilbide motzenetik aldentzeak oinezkoek errepidea behar ez den lekuan gurutzatzea eragiten du askotan, honek dakarren arriskua altua delarik.





Proposamen teknikoa

Oinezkoentzako berriazko ibilbidea egokitzea proposatzen da. Alegia, kotxeen beharizanen gaintetik, oinezkoen beharrak hartzea kontuan lehenengo maila batean, eta bizikletenak bigarrean. Oinezkoen ibilbideen kasuan, ahalik eta ibilbide seguruena, motzenak, egokienak eta erosoena diseinatzea gomendatzen da, berriazko baliabideak txertatuz: oinezkoen egokitutako argizterria -farola baxuak bata bestearengandik hurbil-, bankuak, eta abar.

amm05	Goiko Kale - San Martin
Kokapena, helbidea Ubicación, dirección	Nagusia, San Martin
Koordenatuak Coordenadas	43.176343, -2.313529
Street View	https://goo.gl/maps/8lbspjmUozGxHERKA

Parte-hartzea		
Parte-hartze foroak Foros de participación	Aipamen positiboak Menciones positivas	Ekarpen negatiboak Aportaciones negativas
Udal-Mahaia	Balda Plazatik Goiko Kalera: zerbitzu guztiak eskura, bizitza soziala.	Balda Plazatik Goiko Kalera: zapatu gaueko zarata, oinezko eremua izateko trafiko gehiegi. >> Hobekuntzarik ez, beste auzo batzuk gehiago behar dute.
Mahai sozialak	MS1	--
	MS2	--
	MS3	--
Herritarren galdetegia	--	Eraikinen fatxadak, arropak zintzilik, trasteak... Itsusia.

Diagnostiko teknikoa

Ingurune degradatua. Herrigunetik hurbil egon arren -Kale Nagusiaren goikaldeari deitzen zaio Goiko Kale- inguruneak gainbehera fisiko eta sozialaren zantzuak agertzen ditu. Kasu honetan, espazio publikoek baino gehiago, eraikinek agertzen dituzte gabezia nabarmenagoak, nahiz eta kasuren batean espazio publikoaren kalitatea eraikinek baldintzatzen duten.

Proposamen teknikoa

Birgaitze integratua abiatzea. Ingurune fisiko eta soziala kontuan hartuz, eremua birgaitzea proposatzen da. Kostu altuko ekimena denez, Etxebizitza Sailak ematen dituen diru-laguntzak aztertzea gomendatzen da, Birgaitze Integratuko Areetan edo Bizitegi Area Degradatuetan ondare urbanizatua eta ondare eraikia birgaitzeko. Proposamen hau iradokizun bezala adierazi da, txostenaren egileek ez baitaukate eremu honen inguruan Azkoitiko Udalak orainartean egindako diagnostikoen eta saiakeren berri.



amm06	San Martin auzoa
Kokapena, helbidea Ubicación, dirección	San Martin auzoa
Koordenatuak Coordenadas	43.175910, -2.310782
Street View	https://goo.gl/maps/vRgaDW9t5Yvt5DgJ8

Parte-hartzea			
Parte-hartze foroak Foros de participación	Aipamen positiboak Menciones positivas	Ekarpen negatiboak Aportaciones negativas	
Udal-Mahaia	Kokapena, auzo lasaia.	Aldapa handiak eta eskailera asko. Iluna. >> Argiztapena eta espaloiak hobetu.	
Mahai sozialak	MS1	--	
	MS2	Auzo bizia da: haurrak lasai dabilta, harremanetarako lekuak daude (mahai eta bankuekin), elkarteak...	Irisgarritasun arazoak. >> Eskailera mekanikoak edo behar dena jarri.
	MS3	--	--
Herritarren galdetegia	Bista ederrak.	--	

Diagnostiko teknikoa

Irisgarritasun arazo nabarmenak dituen auzoa da. Bistan da egin den igogailuak asko hobetu duela egoera, baina auzoan bertan dauden oztopoek ez daukate konponbide erraza. Izan ere, igogailuak ia 20 metrotako jauzia egiten lagutzen duen arren, auzoan bertan beste 20 metroko desnibela dago Balda eta Joakin Egia kallen artean. Igogailuaz gain, nabarmena da udala esku-hartzea egin duela hainbat gunetan, espaloiak egokitzen eta eskudelak jartzen. Oraindik lan handia dago aurretik San Martinen, baina Floreagaren aldean biztanle gutxiago daukala hartu beharko da kontuan erabakiak hartu aurretik. Genero Ikuspegitik, gardenagoak beharko lukete izan bai igogailura daraman pasabideak zein igogailuaren dorreak.







Kale asko espaloi eta asfaltoz daude osatuta. Honek lehentasuna ematen dio kotxeari -babesaren pertzepzio maila jeisten delarik- eta irisgarritasuna oztopatzen du.



Orokorrean etxebizitzaren itxura oso txukuna izan arren -biztanleek auzoa zaintzen dutenaren adierazle positiboa-, antzematen da etxebizitza-eraikinak berritzeko beharra. Bestalde, badirudi auzoko etxebizitza asko neurritz txikiak direla egungo bizimodurako. Baina parte-hartze prozesuan jaso denaren arabera, proiektuak aurrera ateratzea ez da erraza, ondareari lotutako babes-mailaren bat dela eta.



Urbanue auzora iristen da. Ordutegien informazioaren faltan, Genero Ikuspegitik balorazioa positiboa da.

Segurtasun ezaren pertzepzioa adierazi da prozesuan zehar, argiztapenarekin lotutakoa batez ere. Gabezia nabarmenenak perimetroan antzeman dira, eta baita eskaileren inguruan ere, nahitaezko pasagune izateaz gain hainbatetan ihesbiderik gabeko ibilbideak osatzen baitituzte.



Edozein kasutan, hainbat gunetan auzo honek giza-escalarekiko egokitasuna erakusten du, egungo hirigintzatik ikasi beharreko hainbat ikasbide eskainiz.



Ez dago sobran puntu honetan jasotzea auzo honetatik ez oso aparte antzeman daitekeen “bereizkeriaren hirigintzaren” arrasto bat, XXI mendeko lehen hamarkadan hainbeste zabaldu zen eredia eta Genero Ikuspegitik egiten diren proposamenetatik hain urrun dagoena.



Proposamen teknikoa


Birgaitze integratua abiatzea. Ingurune fisiko eta soziala kontuan hartuz, eremua birgaitzea proposatzen da. Kostu altuko ekimena denez, Etxebizitza Sailak ematen dituen diru-laguntzak aztertzea gomendatzen da, Birgaitze Integratuko Areetan edo Bizitegi Area Degradatuetan ondare urbanizatua eta ondare eraikia birgaitzeko. Proposamen hau iradokizun bezala adierazi da, txostenaren egileek ez baitaukate eremu honen inguruan Azkoitiko Udalak orainartean egindako diagnostikoen eta saiakeren berri.

amm07	Plaza Berria
Kokapena, helbidea Ubicación, dirección	Plaza Berria
Koordenatuak Coordenadas	43.178674, -2.310731
Street View	https://goo.gl/maps/3BPNTtoD5zxyWnod8

Parte-hartzea			
Parte-hartze foroak Foros de participación	Aipamen positiboak Menciones positivas	Ekarpen negatiboak Aportaciones negativas	
Udal-Mahaia	Balda Plazatik Goiko Kalera: zerbitzu guztiak eskura, bizitza soziala.	Balda Plazatik Goiko Kalera: zapatu gaueko zarata, oinezko eremua izateko trafiko gehiegi. >> Hobekuntzarik ez, beste auzo batzuk gehiago behar dute.	
Mahai sozialak	MS1	--	
	MS2	Herriko sozializazio gune nagusia.	Zorua irisgarritasun zailtasunak eragiten ditu. >> Zorua zaindu.
	MS3	--	--
Herritarren galdetegia	-- Gertutasuna, jendearen topalekua. Zahartuta dago, berritza ezinbestekoa da. -- Zoragarria, nortasuna. Ondo zaindu beharrekoa. -- Lasaia, jendetsua. Trafikoa moztu, baita Herriko Plazan ere. -- Ongizate sozialerako baliabidea. -- Jendetsua. Oinezkoa egin. -- Erdigunea, historikoa. Argiztapena, espaloiak eta galtzada hobetu.	-- Iluna. Argiztapenean kolore argiagoa, ez laranja.	

Diagnostiko teknikoa

Gutxi gorabehera 150x22 metrotako neurriekin, garai bateko boulevard baten funtzioa bete lezake herrigune historikoan.



Kalitate altuko espazio publikoa da, kokapen zentratean, erabileren nahasketa aldetik nahiko aberatsa (etxebizitzak, ostalaritza, dendak). Oinezko gune bilakatzeko baldintza oso egokiak ditu.

Zoru bikaina, irisgarritasun arazoak eragiten ditu ordea. Gainera espalioen eta galtzadaren arteko koskak altuak dira.



Zuhaitzek plaza atseginagoa egiten laguntzen dute.



Inguruko etxebizitza-eraikinen eskala oso pertsonen neurrikoa da.

Kalitate altuko paisaia urbano honi kalte egiten dion hainbat elementu dago. Garrantzitsuenak kotxeak lirateke (gunea zeharkatzen dutenez gain, bertan aparkatuta daudenak). Maila apalago batean ostalaritzari lotutako terrazatako hiri-altzariek hartzen duten espazioa eta zenbait ezaugarri estetiko leudeke, eta baita zaborrontziak ere.



Inazio Iriarte kaleak, Plaza Berriarekin harreman estuan dagoen arren, erabat kontrako pertzepzioa eragiten du: bai segurtasun aldetik, kalitate zein bizigarritasun aldetik.



Tunela.



Txakurzulue.

Proposamen teknikoa

Trafikoa mugatzea, aparkalekuak kentzea eta plaza oinezkotzea. Gainera neurri hau Kale Nagusi osora zabaltzea proposatzen da. Trafikoa mugatzeari salbuespen-arauak ezartzea gomendatzen da, besteak beste:

- Mendekotasuna edo ezintasunen bat duten bizilagunei eta haien zaintzaile nagusiei sarbidea eman behar litzateke. Sarbidearen iraupenari muga bat jartzea proposatzen da (ordubete, adibidez). Sarrera-irteerak kontrolatzeko sistema eta gailu ugari dago gaur egun (txartela, matrikula-irakurgailuak, etab.) eta inguruko hainbat herritan daude ezarrita.
- Plazako ostalaritza eta merkataritza establezimenduak hornitzen dituzten ibilgailuei sarbidea emateko aukera aztertzea proposatzen da. Ordutegi zehatz baten barruan egin liteke. Edozein kasutan, Julio Urkijo amaieratik (zubitik) Plaza Berriko erdira 150 metro besterik ez dagoela ikusirik, edota Joseba jatetxe aurreko orubea kontuan hartuta, beharbada garraio hauei sarrera mugatzea ez litzateke gehiegizkoa izango.



Plaza osoa irisgarri egitea. Zorua osatzeko egun dagoen harria erabiltzea gomendatzen da.

Plaza merkataritza-gune bezala berpizteko lanketa egitea.



Plaza Berria topagunerako “hiri-egongela” bezala ulertzea proposatzen da, hiri-altzariak, argiztapenak, elementu artistikoeak, zuhaitzek eta bestelako elementu naturalek horretan duten eragina kontu handiz erabiliz. Gizon eta emakumeak, haur eta adinekoak, bertako eta etorkinak, errenta altukoak zein baxukoak, guztientzako espazioa eta lekuak izango duen proiektua osatzea proposatzen da, populazio talde guztien behar anitzak asetuz, baina batez ere desabantaila egoera handiengan daudenenak (“ekitatea”).



amm08	Herriko Plaza, Kale Nagusiko trafikoa
Kokapena, helbidea Ubicación, dirección	Herriko Plaza, Kale Nagusia
Koordenatuak Coordenadas	43.177430, -2.312606
Street View	https://goo.gl/maps/UjFEwddqYLCBuBoi6

Parte-hartzea		
Parte-hartze foroak Foros de participación	Aipamen positiboak Menciones positivas	Ekarpen negatiboak Aportaciones negativas
Udal-Mahaia	Balda Plazatik Goiko Kalera: zerbitzu guztiak eskura, bizitza soziala.	Balda Plazatik Goiko Kalera: zapatu gaueko zarata, oinezko eremua izateko trafiko gehiegi. >> Hobekuntzarik ez, beste auzo batzuk gehiago behar dute.
Mahai sozialak	MS1	Kotxeak ez daudenean hobeto.
	MS2	Leku bizia.
	MS3	Murala oso ederra da. Goiko losa oso leku ona da, herri barnean.
Herritarren galdetegia	-- Zabala. -- Jendea ibiltzen da. Hurbila.	--

Diagnostiko teknikoa

Etxebizitzaren prezioa, erakusle. Erdigunean prezio merkean eskaintzen den etxebizitzaren kopuruak artatu beharreko egoera bat erakusten du: arazoa ez da bakarra, eta diagnostiko egokia eskatzen du.

Kale Nagusia abiadura altuan zeharkatzen duten kotxeak hauteman dira. Bertakoak ohituta egon daitezkeen arren, inguruko herrietako Alde Zaharretan gero eta gutxiago ikusten den gertaera da hau.

Herriko Plaza aparkaleku bezala erabiltzen da egunaren tarte luzean. Udaletxea, azoka, Goiko Losa, dendak eta abar biltzen dituen halako espazioa kotxeek hartzen dute hainbat orduz, topagunerako eta elkartruckerako den espazioari funtzio sozial hori nolabait ukatzen zaiolarik.



Proposamen teknikoa

Erdigunea biziberritzeko plana egitea. Edozein kasutan, ingurune fisikoa zein ekonomikoa eta soziala aztertzea gomendatzen da.

Trafikoa mugatzea, aparkalekuak kentzea eta plaza oinezkotzea. Gainera neurri hau Balda Plazaraino zabaltzea proposatzen da. Trafikoa mugatzeari salbuespen-arauak ezartzea gomendatzen da, besteak beste:

- Mendekotasuna edo ezintasunen bat duten bizilagunei eta haien zaintzaile nagusiei sarbidea eman behar litzaieke. Sarbidearen iraupenari muga bat jartzea proposatzen da (ordubete, adibidez). Sarrera-irteerak kontrolatzeko sistema eta gailu ugari dago gaur egun (txartela, matrikula-irakurgailuak, etab.) eta inguruko hainbat herritan daude ezarrita.
- Plazako ostalaritza eta merkataritza establezimenduak hornitzen dituzten ibilgailuei sarbidea emateko aukera aztertzea proposatzen da. Orduz gero zehatz baten barruan egin liteke. Edozein kasutan, Joseba jatetxe aurreko orubetik 150 metro baino gutxiago dagoela ikusirik, beharbada garraio hauei sarrera mugatzea ez litzateke gehiegizkoa izango.

amm09	Azoka
Kokapena, helbidea Ubicación, dirección	Nagusia 60-62
Koordenatuak Coordenadas	43.177143, -2.311875
Street View	https://goo.gl/maps/ok551Y8pDcdx4yFj8

Parte-hartzea		
Parte-hartze foroak Foros de participación	Aipamen positiboak Menciones positivas	Ekarpen negatiboak Aportaciones negativas
Udal-Mahaia	--	--
Mahai sozialak	MS1	--
	MS2	--
	MS3	--
Herritarren galdetegia	>> Esanguratsua. >> Polita. Urteetan zehar emakume baserritarrak eman diote bizia, gaur egun zerbait egin beharko litzateke biziberritzeko.	>> Hotza. Tristeia. Uste dut gai honetan herri mailan 0 bat dugula. Ez dago ia emakumei erreferentzia egiten dien lekurik eta berdura plaza jarri dut uste dudalako bertan egunero egoten diren baserritarren ehuneko handi bat emakumeak direla. Lekua oso utzita dago eta ez du batere goxotasunik. Aldaketa ondo legoke, buelta bat eman azoka plazari, bizi berritzeko aukera izan dezan.

Diagnostiko teknikoa

Azokak Azkoitian bizi duen gainbehera beste herri askotan gertatu denaren antzekoa da: faktore ugariaren eraginpean, inguruko azoka asko desagertzen ari da. Espazio hauek ez dira berez gozoak, baina jenderik ez dagoenean desatsegin bilaka daitezke. Jarraian, Azkoitian ohiko egoera adierazten duten bi irudi, aste egun bateko eguerdian (Azaroak 19, asteartea, 11:54tan).



Proposamen teknikoa

Azoka biziberritzeko lanketa egitea, ekoizle eta kontsumitzaileen partaidetzarekin. Hauetaz gain, oso garrantzitsua litzateke kontsumitzaile EZ direnen parte-hartzea, horien eskuetan ere bai baitago arazoaren konponbiderako giltza.

Inguruko berritze-prozesuak ezagutzea, Azpeitiko kasuaz gain beste batzu ere aztertuz. Besteak beste Urkomeren laguntza eskatu bide honetan.



Mapa Morearen prozesuan ikusi den bezala, edozein gai xumea edo garrantzitsua izan daite, norberak (udalak, "herritarrek"...) ematen dion garrantzia hartuko baitu. Azkoitiko herriak eta udalak gai honi jarrera horrekintxe aurre egitea proposatzen da: zenbateraino da larria edo garrantzitsua azokaren egoera hau? Arazoearen "eraikuntza partekatu" honetan, jasangarritasunaz gain (ingurugiroarena, ekonomikoa, soziala) beste hainbat ardatz jar daitezke erdigunean: osasuna, kultura, etab.

amm10	Loiolako bigegorria
Kokapena, helbidea Ubicación, dirección	Azkoitia - Loiola
Koordenatuak Coordenadas	43.172272, -2.304955
Street View	https://goo.gl/maps/ESofy4wBpvWY4m75Z

Parte-hartzea		
Parte-hartze foroak Foros de participación	Aipamen positiboak Menciones positivas	Ekarpen negatiboak Aportaciones negativas
Udal-Mahaia	Berdegunea, egunez jendetsua, kotxerik ez.	Gauzez iluna eta bakartia. >> Argi gehiago, zorua hobetu.
Mahai sozialak	MS1	--
	MS2	Jende asko ibiltzen da eta kirola egiteko leku ona da.
	MS3	--
Herritarren galdetegia	-- Atsegina, eroso.	-- Argi gutxi dago ta gabaz beldurra sartzen da.

Diagnostiko teknikoa

Gauzez segurtasun pertzepzioa baxua da. Ingurune naturaletan zehar doazen era honetako bideetan ia konponbiderik gabeko arazoa da hau.

Bidean zehar komuna falta da.

Juin aldean bada 250 metroko luzera duen tarte bat konpondu beharrekoa.





Erabilera maila altua duen ekipamendua da, konparatu beharko litzateke herriko beste ekipamenduen erabilerekin.



Ibaiari lotutako ekipamendua da, baina herrian galdu egiten da.



Proposamen teknikoa

Loiolako bidegorria ekipamendu anitza bezala ulertzea eta baloratzea proposatzen da, eta horren arabera esku hartzea. Izan ere ez da erraza “kutxa” bakarrean sartzea:

- **Mugikortasun jasangarrirako ekipamendua.**
- **Kirol ekipamendua.** Genero ikuspegitik kontuan hartu behar da ibiltzea dela populazioaren talde handi baten jarduera gustokoena eta hobe egokitzen dena bere beharretara, gaitasunetara eta nahietara. Honexegatik artatu eta egokitu beharko litzateke bide hau beste edozein kirol ekipamendu egiten den bezala.
- **Osasun ekipamendua.** Udalek osasun-ekipamenduak ez badituzte ere, herritarrek bere osasuna “eraiki” dezaten hainbat baliabide dauzkate, eta horien artean aurre-aurrean legoke bidegorri hau.
- **Ekipamendu soziala.** Ikusi besterik ez dago, ibiltzera joatea konpainian egiten den jarduera dela: alde horretatik, bidegorriak osasunaren gain eragiten dituen onuren artean nagusiena ez da beharbada fisikoa, mentala eta soziala baizik. Ondo dakite hau erabiltzaileek, topagune bezala ere erabiltzen bait dute bidegorria. Bestalde, munduko kultura guztietan da gogokoa ibiltzea, eta horregatik sustatu beharko lirateke gehiago bidegorria eta bere erabilera, ibiltari taldeak sortuz baita ere. Genero ikuspegitik, oso interesgarria da emakume etorkinak ikustea bidegorrian, ez bait da erraza beste kirol ekipamenduetan ikustea.

Esku hartze zehatzen proposamenari dagokionez, bi nagusienak lirateke:

- **Komuna jartzea.**
- **Juin aldeko tartea hobetzea.** Seguru asko epe luzeko plangintzarekin eta eskumenekin lotutako arrazoiak medio, bada 250 metroko luzera duen tarte bat konpondu beharrekoa.
- Herri barruan ibai ondoan doazen pasealekuekin pixkanaka lotu.

Eranskina

Aipamen askeak



Genero Ikuspegiak "zaintzaren mugikortasuna" aztertzea eta lehenestea exijitzen du.



Lurpeko pasabideek aipamen gutxi jaso dituzte parte-hartze saioetan.



Oraindik ere hobetzeko asko dago Genero Ikuspegitik: Estrada auzoko (Bizenta Juaristi) 60 zenbakira sarrera.



Asfaltoak eta trafikoak oraindik leku gehiegi hartzen du hainbat lekutan. Zenbait kasutan, oinezkoen ibilbideak hobetu daitezke.

Eranskina

Gazteen ekarpena Azkoitiko Mapa Moreari

Gorago aipatu bezala, Azkoitiko Mapa Morea hasiera bateko planteamenduaz haratago joan da zenbait esparrutan. Adibidez, gazteen ekarpenak jasotzeko berariazko jarduketak garatu ditu. Hala, hainbat ikastetxeren laguntzari esker, 14 urtetik gorako (DBH, Batxilergoa, Lanbide Heziketa) 142 gaztek txintxetak erantsi dizkiote mapari. Herritarrentzako prestatutako online galdetegia moldatu da informazio bilketa egiteko, eta beraz 600 puntu baino gehiago bildu dira. Informazio horrek eranskin bezala lagunduko dio Azkoitiko Mapa Moreari, helburu bikoitzarekin:

- batetik, mapari geruza esanguratsu bat gehitzea, datu kantitate handi baten gainean eraiki izanak ematen duen bermearekin;
- eta bestetik, generoen arteko desberdintasuna eta desberdinkeria bistaratze aldera, Azkoitian esparru desberdinetan diharduten hezitzaileei laguntzarako materiala eskaintzea.

Galdetegira esteka: labur.eus/AMM3

AZKOITIKO GAZTEEN MAPA MOREA

labur.eus/AMM3

///

Gazteen ekarpenak Azkoitiko Mapa Morean txertatzeko online-galdetegia.



Hasieran partaideen oinarrizko datu batzu eskatzen ditu galdetegiak, datuak banakatze aldera:

Partaidearen datuak
Informazio honek galdetegiaren emaitzak ulertzen lagunduko digu. Mila esker emateagatik.

Sexua *

Emakumea

Gizona

Beste bat

Adina *

11-13

14-15

16-17

18+

Azkoitian bizi al zara? *

BAI

EZ

EZ, baina astean ordu asko ematen dut hemen

Non bizi zara?

Azkoititik kanpo

Erdigunea: Alde Zaharra

Erdigunea: Zabalgunea

Floreaga

Auzmendibidea

Trenbidearen Zumardia

San Martin

Altzibar

Txalonerreka

Ipintza

Otro: _____

Partaideei mapari bost “txintxeta eranstea” eskatzen zaie, jarraian aipatuko diren galderi erantzunez. Bost ekarpen hauetako bakoitza honoko informazioarekin osatu da:

<p>Lekuaren izena *</p> <p>Tu respuesta _____</p>
<p>Lekua kokatzen laguntzeko datuak</p> <p>Tu respuesta _____</p>
<p>Lekuari ematen diozun puntuazioa *</p> <p>Elige ▼</p>
<p>Lekuaren ezaugarri bat hitz batean *</p> <p>Tu respuesta _____</p>
<p>Beste ezaugarri bat hitz batean</p> <p>Tu respuesta _____</p>
<p>Leku honetaz besterik esan nahi? (deskribapena, hobekuntza proposamenak...)</p> <p>Tu respuesta _____</p>

Aipatu bezala, ekarpenak jasotzeko bost galdera egiten zaie partaideei: bi lehenengoak defizitak jasotzera bideratuak, eta beste hiruak nolabait “aktiboak” jasotzera. Hona galderak:



Segurtasuna

Aipatu zuretzat garrantzitsua den herriko leku bat, baina gauez edo egunez segurtasun baxukoa iruditzen zaizuna, erasoak jasateko edo mehatxuak jasotzeko arriskua dela eta.



Babesa

Aipatu zuretzat garrantzitsua den herriko leku bat, baina babesgabea edo desatsegina dena, trafikoagatik edota bestelako arriskuengatik, jarduerengatik...



Ongizate pertsonala

Imajinatu arazo baten eraginez agobiatuta zabiltzala eta etxetik irten nahi duzula, bakardadean buelta bat ematera, lasaitzera... Nora joango zinateke?



Ongizate soziala

Zuretzat, zein da udalerriko lekurik onena zure lagunekin eta inguru hurbileko jendearekin egoteko?



Adierazgarritasuna

Pentsa udalerriko emakume guztiengan, neska txikienetatik emakume zaharrenetara. Zure ustez, zein da udalerriko lekurik garrantzitsuena beraientzat?

Gorago aipatu bezala, galdetegia amaitzeko auzoen balorazioa egiteko eskatu zaie partaideei:



Auzoen puntuazioa
Auzo batzutan emakumeentzat bizimodua hobea eta errazagoa da besteetan baino. Erman puntuak honoko auzo bakoitzari, -3 eta +3 artean.

*

	-3	-2	-1	0	+1	+2	+3
Erdigunea: Alde Zaharra	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Erdigunea: Zabalgunea	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Floreaga	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Auzmendibidea	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Trenbidearen Zumardia	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
San Martin	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Altzibar	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Txaionerrika	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Ipintza	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Landa-auzoak	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

Galdetegiak urriko 2019ko 17aren eta 23aren artean osatu ziren, honoko partehartzearekin:

Emakumea	62	%43,7
Gizona	76	%53,5
Beste bat	4	%2,8
GUZTIRA	142	

11-13 urte	8	%5,6
14-15 urte	71	%50,0
16-17 urte	20	%14,1
+18 urte	43	%30,3

Azpimarratzekoa da **gazteen galdetegian eremu guztietan emakumeek gizonak baino puntuazio baxuagoak** eman dituztela, tarterik nabarmenenak Floreagan (0,69), landa-auzoetan (0,89), Altzibarren (1,12), Txalonerrekan (1,14) eta Ipintzan (1,58) hauteman direlarik.

	ZAHA	ZABA	FLOR	AUZM	ZUMA	SMAR	ALTZ	TXAL	IPIN	LAND
Emakumea	1,05	1,10	-0,85	-0,26	0,98	-0,26	-0,82	-1,65	-1,87	-0,77
Gizona	1,29	1,11	-0,16	0,29	1,05	0,33	0,30	-0,51	-0,29	0,12
Beste bat	0,75	0,50	-0,25	0,00	0,50	-0,50	-0,75	-1,25	-0,25	1,00
GUZTIRA	1,17	1,08	-0,46	0,04	1,01	0,05	-0,22	-1,03	-0,98	-0,25


Honek berretsiko luke maila teorikoan ere aipatu izan dena prozesuan zehar: emakumeek pertzepzio negatiboagoa egiten dutela bere inguruneaz, eta beraz **kaleen erabileran generoak baduela eragina, gazte-gaztetatik hasita gainera**. Azkoitiko auzoen balorazioak erakusten duenaren arabera, balorazio negatiboena aldentutako eremuek jasotzen dute, berriro ere berretsiz maila teorikoan aipatua, alegia espazio zehatzen gäinetik joan-etorriek daukaten garrantzia segurtasunaren esperientzian.

Hurrengo orrialdeetan, galdetegiko 5 galderen inguruan gehien aipatu diren puntuak jaso dira. Galdera horien arabera, irizpide ardatz bakoitzari buruzko toki bat identifikatu eta kokatzeko eskatu zaie parte-hartzaileei:

- Segurtasuna, erasoen eta mehatxuen aurrean.
- Babesa, kalte eta arriskuen aurrean, hala nola trafikoa edo bestelakoak.
- Ongizate pertsonala.
- Ongizate soziala.
- Emakumeen adierazgarritasuna.

SEGURTASUNA			
Neskak		Mutilak	
Liburutegi atzeko pasealekua	7	Txakur-zulue	8
Zuazola kalea + Floreaga auzora Balda plazatik	7	7 frontoiak	6
Txakur-zulue	6	Floreaga auzoa + Floreagako patio gaineko bidea	6
Txalonerrekara doan bidea	5	San Martin auzoa	6
Santa Klara - Matadeixe - Ugarte	4	Badulake atzea	5
Altzibarrera ibai ertzetik doan bidea	4	Goiko kale - San Martin kalea	5
		Altzibarrera ibai ertzetik doan bidea	5





BABESA			
Neskak		Mutilak	
Julio Urkijo eta Izpiritu Deuna	9	Herri barruko kaleak	8
Ibai Ondo kalea	7	San Juan	8
Herri barruko kaleak	6	Altzibarrera ibai ertzetik doan bidea	5
Floreaga + Floreaga eskola azpiko rotonda	4	Txalonerrekara doan bidea	5
Tanatorioko rotonda	3	Floreaga + Floreaga eskola azpiko rotonda	4
Kiroldegiko rotonda	2		





ONGIZATE PERTSONALA			
Neskak		Mutilak	
Loiola	19	Loiola	19
Uxer	10	Uxer	9
Bakarrik inora ez	9	Altamira + Munoaundi	6


Aipatzekoa da nesketa inork ez duela “lokala” edo antzekorik aipatu, eta mutilen artetik soilik biek egin dutela.



ONGIZATE SOZIALA			
Neskak		Mutilak	
Balda plaza	15	Balda plaza	9
Plaza Berria	8	Plaza Berria	8
Herriko plaza	7	Herriko plaza	5
7 frontoiak	6	Lokala	5
		Kontzejupea	4
		San Juan	4
		Uxer	4



ADIERAZGARRITASUNA			
Neskak		Mutilak	
Herriko plaza	26	Herriko Plaza	21
Kale Nagusia	5	Plaza Berria	5
		Eliz ataria - Etxe Beltz	4
Aipatuenak izan ez diren arren, azpimarratzeko ekarpenak:			
Bere etxean *	4	Bere etxean *	2
Ez dago	4	Ez dago	0



Segurtasuna, erasoen eta mehatxuen aurrean

“Aipatu zuretzat garrantzitsua den herriko leku bat, baina gaez edo egunez segurtasun baxukoa iruditzen zaizuna, erasoak jasateko edo mehatxuak jasotzeko arriskua dela eta” galderari gazteek emandako erantzunak. Koloreka desberdinu dira nesken erantzunak (morez), mutilenak (urdinez) eta besteenak (txuriz).

Lekuaren izena	Kokapena	Puntuazioa -3 ... +3	Ezaugarria 1	Ezaugarria 2	Zerbait gehiago?
Floreagako patio gaineko bidea		1	iluntasuna		
Julio Urkijo	Telepizzaren atzean	0	Iluna	Beldurra	Argi gehiago egotea.
Matadeixe ingurua		-1	iluntasuna		
7 frontoiak		-3	leku iluna		
Altzibarrera ibai ertzetik doan bidea		-2	Iluntasun handia		
Altzibarrera ibai ertzetik doan bidea		-3	pixkat beldurgarria		Baita ere Txalonerreka
Altzibarrera ibai ertzetik doan bidea		-1	Pixkat beldurra		Farola gehiago jartzea
Altzibarrera ibai ertzetik doan bidea		1	herritik aparte	Iluntasuna	Gaez kaletik etxera joateko segurtasun falta, ibai aldean zehar.
Altzibarretik Ipintzara doan bidea	Altzibarretik ipintzara	-1	Hutsa		
Auzmendibidea		0	Iluna		Baita ere: Xabier Munibe ikastolaren atzea eta balda goxe..
Badulake atzea		0	iluntasuna		
Balda plaza goia	plaza balda goian	0	beldurgarria	iluntasuna	ez
Batzoki atzeko aparkalekua	Batzoki atzealdeko parking ingurua	-1	Argizatua egon arren , beldurra paszten dut		43.177373, -2.305873
Elkarguneko tunela		-3	Segurtasun eza.	Iluna, hotza...	
Ertzainetako aldapa		-2	Beldurgarria	Iluna	
Floreaga auzoa		-2	Iluna	Hutsa	Jende gutxi egoten da eta ia argirik ez dago
Floreaga auzoa	floreaga auzoa	1	bildurra ematen du		farolak jarri
Floreaga auzora Balda plazatik	floreaga auzora igotzeko eskailerak	0	argirik gabe		farolak jartzea eskaileren bukaeran
Floreaga auzora Balda plazatik	Balda Goitik doan kalea (Suazola kalea)	-2	Argi gutxikoa		
